

JUANTXO ESTEBARANZ

Bilboko Likiniano Elkartea kolektiboko kide Juantxo Estebaranzek, Periferiak topaketan barneko bere partaidetza hasteko, kontatu egin zuen nola gertatu zen bera kide den erakundearen sorrera, 80ko hamarkadaren amaiera aldean, Bilbon. Hainbat gizarte mugimendutatik zetozen pertsonak ziren, baina lan egiteko modu bat partekatzen zuten, eta bategite espazio bat sortu beharra ikusi zuten, hain zuzen ideologia partikularren gainetik egongo zen bat; eta Likiniano Elkartea sortu zen. Harrezkero hamabost urte igaro dira, eta denbora horretan zehar, ezkerreko pentsamendu batetik, oso lan handia egin dute hainbat kolektibo eta errealitateen materialei zabalkundea emateko ahaleginean. Gaur egun Likinianon liburutegi bat dago, biblioteca bat, eta toki zein nazioarte mailako zenbait gizarte mugimenduri buruzko artxibo historiko bat; musika produzitzen dute, poesia testuak eta literatura euskaraz, aldizkariak, fanzineak... Ezen interesatzen zaizkien ekimenak dira, eta horien alde egiten dute.



Ondoren, Likiniano Elkartearen kide honek aipatu egin zuen Artelekun eskaini zuen hitzaldiaren izenburua –*Tres miradas indirectas a un mundo en llamas* zen-, argitzearen hain zuzen "sutan den mundua", berak aipatu zuena, mundu suntsitu bat dela, gerra-estatuak erabat nagusitu diren mundua alegia. "Ukitzen gaituen errealitate bat da, ezin diogu ihes egin. Gerra egoera hau, bestea menderatzea ulertzeko modu berri bat da. Prebentzio gerra honaino iristen ari da, bat eginez hainbat pentsamendu-arloren kriminalizazioarekin zein horien aurkako ekintzekin. Gerra-estatuak ez dira delitua gertatu zain egoten, lehenago zigortzen gaituzte", esan zuen. Likiniano Elkartetik ahalegina egiten dute sutan den mundu horretarantzko, kaosa nagusi delarik gaur egun inori segurtasunik ematen ez dion horretarantzko zeharkako begiradak zabaltzeko.

Ondoren, azken hilabeteotan zehar proposatu dituzten ideietako batzuk aurkeztu zituen Juantxo Estebaranzek. Aipatu zuen lehen obra Jaime Semprún-en *El fantasma de la teoría* testua izan zen. Artikuluak heldu egiten dio teoriak gatazkei buruz aritzeko unean duen funtzioari eta benetako balioari. Autoreak, honetan, zera planteatzen du, egungo gizartea degradazio egoera batean dagoela, eta egoera hori hain dagoela aurreratua ezen ezinezko egiten baitu berari buruz teorizatzea, ez baitago inolako aztarnarik. Teoriak, gaur egun, ez du gatazken giltza nagusiak aurkitzeko eta gatazka horietan parte hartzeko moduak proposatzeko inolako indar edo botererik. "Teoriaren helburuak mundutik at kokatzen gaitu, orojakilearen planoan jartzen gaitu, eta horretatik dena ezagutzen eta denaren bilakaera antolatzen dugu. Munduan gertatzen den guztia ulertzeko gai gara. Mugen jakitun izan arren, mundua ulertzen ahalegintzea bizirik irauteko modu bat da, baina aitortu egin behar ahalegin horren hantustea. Oso interesgarria da mundua menderatzen duzun erdiko puntuan zaudelako eldarnio sektarioa agerian uztea.

Baina egia zera da, mundua sutan dagoela; nola egingo ote diogu horri aurre?“, galdetu zuen Likiniano Elkarteko kideak.

Aurkeztu zuen bigarren proposamena Raúl Zibechi-ren *Genealogía de la revuelta Argentina: la sociedad en movimiento* liburuaren berrargitalpena izan zen; liburu honetan, autoreak Argentinako krisialdiaren hainbat alderdi aztertzen ditu, eta eskubideak galdatzen dituzten baina, jasotzea espero ez dutelarik, berez erantzunak antolatzen dituzten gizarte mugimenduetan biltzen da nagusiki. Boterera iristeke mundua aldatu nahi duen mugimendu baten historia kontatzen du liburuak. Mugimendu hori, borroka modu zaharrek garrantzia galdua zuten eta aukera bakarra borrokei aurrera eragiteko forma berriak aurkitzea zen unean sortu zen. “Aldaketa etengabea gaude, garai bat amaitu da eta kaosean dantza egiten ikasi behar dugu“, Juantxo Estebaranzen iritziz. Munduan funtzionatzen ari diren erakundeek duten denbora ez da 80ko azken urteetan, Likiniano Elkartea sortu zuen taldea eratu zenean, funtzionatzen zuen denbora bera. “Beste erakunde mota bat dira, lagunen arteko aliantzak, ni bezalako jendea etorri den tradizioen araberrakoz ez direnak. Gaur egun erabiltzen diren sorkuntza eta kontsensu dinamikak arraroak zaizkit. Nire irudi-mundua gainditua dago jada, eta dagoeneko ez du balio; beraz, erlaxatu egin behar dut, eta lan eta sorkuntza modu berrietan sartu“, esan zuen.



Likiniano Elkartek obraren zabaltze lana egin duen beste autore bat Ramón Germinal izan da, bere tesietako batzuk Santiago López Petitekin partekatzen dituen langile emigrante bat bera -aipatu López Petitek ere parte hartu zuen Artelekun izandako Periferiak topaketetan, eta Likiniano Elkarteko kideak haren biziraupen-estrategiaren aldeko ageri dira-. Ramón Germinalen iritziz, Estatuarekin finkatzen ditugun borondatezko loturek ordezkatzeko bizi garen prekariorotasuna. “Egoera honetatik irteteko proposatzen duen taktika zera da: galdu dugun jakinduria tradizionala berreskuratzea. Subjektutzat itxuratzen gaituen jakinduria existentziala berreskuratzea eta berregitea. Jakinduria hau aurrekoengandik jasoa genuen, eta gure egiteko modua haietan modu kolektiboan parte hartzea zen“, azaldu zuen Juantxo Estebaranzek.

Hauek dira Likiniano Elkartean lantzen ari diren ideia eta autoreetako batzuk. Estebaranzen iritziz, errebindikatu egin behar da mundua egiten ditugun borroken bultzadaz mugitzen delako pentsamendua, “ez dakigu borroka horiek espero ditugun ondorioak izango dituzten, baina jarduera askatzaileak dira“, esan zuen amaitezko.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.